


Euskal AEko industri prezioak %0,8 jaitsi ziren 2012ko abenduan aurreko hilaren aldean

Aurreko urtearen aldean, %0,3 igo

Euskal AEko industria prezioen indizea: EUSTATEk landutako datuen arabera, 2012ko abenduan %0,8 jaitsi zen aurreko hilaren aldean. Datu horiek kontuan hartuta, abenduko urte arteko tasa (azken hamabi hilabeteetan industriako prezioek izandako aldakuntza) %0,3ko hazkundera da

Euskal AEko Industria Prezioen Indizearen abenduko urte arteko tasak. Behin-behineko datuak



Iturria: EUSTAT. Euskal AEko industria prezioen indizea (IPRI)

Sektorekako azterketa xeheagoak agerian uzten du, 2012ko abenduan, "Elikagintza, edariak eta tabakoa" (%0,3) eta "Altzariak eta beste manufaktura-industriak" (%0,2) adarrek, besteak beste, gehitu zituztela gehien prezioak, aurreko hilaren aldean. Bestalde, prezioetan jaitsierak izan zituzten sektoreak honakoak izan ziren: "Kokeriak eta petrolio finntzea" (% -3,1), "Energia elektrikoa, gasa eta lurruna" (%-1,8), "Zurgintza, papera eta arte grafikoak" (%-1,5).

Urte arteko aldean, hots, 2012ko abenduan, 2011koaren aldean, prezio-hazkunderik handienak honako adarrek izan dituzte: "Produktu elektronikoen fabrikazioa" (%5,8), "Energia elektrikoa, gasa eta lurruna" (%3,8), "Produktu farmazeutikoen fabrikazioa" (%2,7). Bestalde, prezioetan jaitsierak izan zituzten sektoreak honakoak izan ziren: "Erauzketa industriak" (%-4,8), "Garraio materialaren fabrikazioa" (%-3,1), "Zurgintza, papera eta arte grafikoak" (%-1,9).

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera sailkapenari jarraituz, aurreko hilaren aldean, Energiaren prezioak %2,6 jaitsi ziren eta %0,6 Bitarteko ondasunenak; Ekipo-ondasunenak egonkor. Kontsumoko ondasunenak %0,2 igo, hauen barruan Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrenak %0,2 eta iraunkorrenak %0,0.

Ondasun-talde horietako prezioen bilakaerek aldeak agertu zituzten urte arteko aldian. Energiaren prezioak %1,5 garestitu ziren; Ekipo-Ondasunenak %0,2, Bitarteko Ondasunenak %0,1 jaitsi eta Kontsumo-Ondasunenak %0,3 jaitsi. Azken horien barruan, Kontsumo-ondasun iraunkorren prezioak %0,1 igo ziren, eta Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrenak %0,4 jaitsi.

INDUSTRIAKO PREZIOEN INDIZEA. EUSKAL AE. DATU AURRERAPENA. 2012ko ABENDUA				
GOIBURUAK	INDIZEA Oinarria 2005=100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduen aldean
INDIZE OROKORRA	123,1	-0,8	0,3	0,3
SEKTORE-BANAKETAK				
Ateratze-industriak	117,2	-0,7	-4,8	-4,8
Manufaktura-industria	119,6	-0,6	-0,1	-0,1
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	167,4	-1,8	3,8	3,8
ONDASUNAK, HELBURU EKONOMIKOKA				
Kontsumo-ondasunak	114,3	0,2	-0,3	-0,3
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	105,9	0,0	0,1	0,1
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	117,9	0,2	-0,4	-0,4
Ekipo-ondasunak	111,4	0,0	0,2	0,2
Bitarteko ondasunak	118,3	-0,6	-0,1	-0,1
Energia	161,0	-2,6	1,5	1,5

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko industria prezioen indizea (IPRI)

Informazio gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

[Euskal AEko Industria Prezioen Indizeari \(IPRI\) buruzko prentsa-ohar gehiago](#)

[Euskal AEko Industria Prezioen Indizearen \(IPRI\) gainerako datu-bankua](#)